

JOSEBA JAKA ELKAR ARGITALETXEKO ARDURADUNA ETA EGUNKARIAKO FUNDATZAILEETAKO BAT ZEN BESTEAK BESTE

Euskarazko kultur produkzioak arima bat galdu berri du

Joseba Jaka Elkar argitaletxeako arduradun eta EUSKALDUNON EGUNKARIAKO Administrazio Kontseiluko kidea atzo hil zen Cadizko eritetxe batean. Gaur zortzi ezbeharrak izan zuen itsasoan, eta koman zegoen orduz geroztik. Euskarazko kultur produkzioak eta, oro har, euskalgintzak arima bat galdu du bera joatean.

Jone Larrañaga / Donostia

JOSEBA JAKA Aste Santuko oporrak igarotzera joana zen familiarekin Cadizera. Hondartzan alabekin korrika aritu zen eta uretara sartu ziren botatako izerdiak freskatzeko asmoz. Baina tarte laburrean itsasoa harrotu eta arriskuan zeudela jabetu ziren. Alabek lehortera iristea lortu zuten arren, bera ezin irten zitekeela geratu zen.

Ur ugari irentsi zuen eta arnasarik ez zuen hartu denbora luzez. Sorospen taldeak hara iritsi zirenean, artean bizirik zela jabetu eta berehala eraman zuten inguruko ospitale batera. Koma sakonean egon da harrezkeror.

Bere osasun egoerak ez zuen aldaketarik izan atzo arte, eta herenegun bertan helikopteroz Donostiako erresidentziaraino ekartzeko aukera aztertzen aritu ziren sendagileak. Baina halakorik egitea komenigarria zitekeen edo ez erabaki aurretik hil zen atzo goizean, 46 urte zituela.


Aizkorri aineratuko dituzte errauntsak

Joseba Jakaren gorpua Cadizen bertan erraustuko dute, eta larunbat arratsaldean egingo dute haren aldeko hileta Aizkorri mendiaran magalean. Han bertan aineratuko dituzte bere errauntsak senitarteko eta lagun minak.

Euskalgintzari oso lotutako gizona zen Jaka, eta euskal liburugintzaren bultzadaren zeresan handia izan zuena. Liburuak eta diskoak argitaratzeko Elkar sortu zuen, haien Zabaltzen banaketa sarea, eta Bilintx liburudenda zuzeneko salmentarako. Berak elkarriketa batean eta bestean azpimarratu zenez, baina, bera ez zen enpresari hutsa, betidanik eduki baitzuen argi sortutako irabaziak euskal kultura bultzatzeko inbertitu behar zirela.

Oso gaztetatik hasi zen Joseba Jaka liburuak saltzen. Bederatzi urte zituela morroi eraman zuten Zegama jaioerriko baserri batera, eta Zumarragako jatetxe batera pintxe 14 urtekin. Han hasi zen salmentetarako zuten trebetasunaz jabetzen, eta 16 urte zituela, liburuak saltzeko iragarki bati erantzunez Donostiaraino etorri zen aitarekin. *La Gran Enciclopedia del Mundo* eta makina bat *Biblia* saldu ondoren, euskal liburuak kreditua eskaintzen hasi zen etxeko etxe. Sendoa argitaletxeko liburuak hain zuzen ere.

Soldadutzara joateko garaia iritsi zitzaion handik gutxiara, eta berak aitortua zenez, orduan sortu zitzaion euskal kultura bultzatzeko kontzientzia. Logro-



Joseba Jaka, 1993ko ustallean ateratako argazkian.

LEIRE ARZUAGA

Joseba Jakaren gorpua
Cadizen bertan
erraustuko dute, eta
larunbat arratsaldean
aineratuko dituzte
haren errauntsak Aizkorri
mendiko magalean

ñotik bueltan hasi zen buru-belarri euskal liburuak saltzen. Ikastolen mugimendua ere orduntxe ari zen indarra hartzen, eta liburuak saltzen poltsikoratzen zuten komisioen erdiak testuak egiteko uzten hasi ziren. Larunbat ugari eman omen zituzten berak eta ingurukoek multikopistatan apunteak-eta ateratzen.

1973an Iparraldera errefuxiatu behar izan zuen Jakak. Han ere euskal kulturgingintzan lanean

Euskalgintzari oso
lotutako gizona zen
Joseba Jaka, eta ildo
horretan euskal
liburugintzaren
bultzadaren zeresan handia
izan duena

jarraitu zuen. Zabalen izeneko liburudenda ireki zuten Baionan, soldadutzara joan aurretik irabazitako sosa-guztiak hantxe utzita. Elkar disketxea ere garaitu hartan sortu zen, eta diskoak saltzen ere bera ibiltzen zen. Elkar disko eta liburu argitaratzailea urte gutxitara bisortu zuten Iparraldeko hogeitaziki Hegoaldeko beste hainbat batuta.

1976ko udaberrian itzuli zen Jaka Hegoaldera. Handik gutxiara ezkondu zen Mari Jose Irizarrekin eta etxe-bidaiera joan ordez, Donostiako Bilintx liburudenda irekitzeko azken tratuetan eman zituen ezkontza ondoko egunak. Zabalen jarritako dirua berreskuratuta zabaldu zen denda Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean, eta Zabaltzen banaketa sarea.

EUSKALDUNON EGUNKARIAKO fundatzaileetako • Zabaltzen, Elkar eta Bilintxen zituen ardurez gain, ordea, euskal kulturgingintzan sortutako makina bat proiekturen bultzatzaile izan zen Joseba Jaka, euskarazko egunkariarena besteak beste. Jaka EUSKALDUNON EGUNKARIAKO fundatzaileetako bat izan zen, eta bertako Administrazio Kontseiluko kide izan da atzo hil zen arte. X

Joseba

• JOAN MARI TORREALDAI - IÑAKI URÍA •

Bihotza. Motorea. Ardatza. Euskal Kulturgingintza. Elkar. Zabaltzen.

Eta nerbioa. Joseba. Burua etengabe martxan. Euseno. Harluxet Fundazioa...

EUSKALDUNON EGUNKARIAN bat egin genuen. Joxemi eta Joseba. Uztargileak. Proiektuak amestu eta martxan jartzeko gaitasuna.

Intuitzioa. Usaimena. Ezagutza eta esperientzia. Keinu batean nabaritzen genion proposatutako proiektuak etorkizunik ba ote zuen.

Langile nekagabea. Maratolaria. Luzarora begira urrats txiki zuzenak egiten zuena. Aurrera bultzatzen zuena. Bultzatzailea.

Aitz-gorriean hazi eta euskal kulturgingintzarentzat azpiegiturak eraikitzea zuen xedea. Euskal Kulturaren Aizkorria. Joseba emankorra. Sortu eta sortutakoa proiektu berrietan sartu. Euskal kulturaren militantea. Enpresa gizona. Euskal militantea.

Laguntzailea. Laguna. Joxemik umezurtz utzi gintuenean

EGUNKARIAN gehientsuen lagundu gaituena. Anaia zaharra.

Ez genian sinisten. Joseba. Koman hintzen. Baina etorriko hintzen. Berandu, baina seguru.

Umezurtzago sentituko gaituk, baina helduago egin gaituk.

Ez gaituk geratuko. Aurrera egingo diago EGUNKARIAN. Aurrera euskaldunak elkartzen eta za-baltzen. Aurrera euskal kultura errotzen. Itsaso arrotz batek erabat ito ez gaitzan!